

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Salome Uria Narbaiza

Azkoitia
Gipuzkoa (1945)

Aurkibidea



Biografia



1945an jaio zen Azkoitiko Urrategi auzoko Ubegietatxo (Uitetxo) baserrian. Aita Ubegietatxokoa bertakoa zuen eta ama auzo bereko Zabaleta baserrikoa. Eskolan Urrategin bertan eta Azpeitiko jesuitetan ibili zen. Ezkonberritan Nafarroara joan ziren bizitzera, klimagatik, eta 3 urte igaro zituzten bertan. Baserriko lanetan aritu izan da beti eta Urretxuko azokara ere joan izan da fruta saltzera. Senarra Azkoitiko Aizpurutxo auzokoa du eta bi semeeren ama da.

Zintak

AZK-009

- **Proiektua:** Azkoitiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2008-03-05
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber
- **Transkribatzailea(k):** Sorazu, Amaia

Pasarteak

1. Azkoitia eta Elgoibar aldeko hizkera

- **Erref:** AZK-009/001
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Kaleko eta baserriko euskararen artean ezberdintasunak aurkitzen ditu. Urrategi auzoan bertan Uxaun aldekoek Elgoibarko hizkera erabiltzen dute. Martitako, Elgoibarko eta Azkoitiko hizkera aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Ta aldia igartzen dozu kaleko euskeratik baserrira?
- Hitz batzuten bai. Eta gu Urrategin alde batekuk gea ta Oxaun aldekuek "zelakue" ta... han amak bi etxetan Elgoiber aldekuek, hiru etxetan...
- Kanpotik etorritakuak dialako.
- Ez oso urrutitik e, hortxe Elgoiber mugatik, baiño... hitz batzuek, ya ezagunek eitten zituen, amai ikasittekuek bai.

- Ta geo hor Martitte aldian...
- Hor "ye"... guk ogixe... iguel ez... Kanpokuek "xe" gehixo eitten debe..."xe" zea gutxixo pronuntziautekue bezela da gurie.
- Bai ta hamendik, Azkoittitik Elgoibarrera be ya aldia igartzen da euskeran, ezta?
- Diferentie da, oiñ bestaldetik ikusten da baitte... Axkoittikuk joskeran edo badaukela antza esaten debe , bai Elgoiber, ta bai bizkaierikin´e badaukela... hori azpeitiar batek esaten zun zera Altuna..., Axkoittiko hizketie nahiko ona zala esate zun, nahiko aberatsa ta nahiko ona ta euskera batuekin nahiko ondo zetorrela ta ba lehelengue zea azpeitiarra Axkoittiko hizketie famatzen duena, esan nixon, beti piken ibiltzen gea ta... behintzet esan zeozter txarra eiñ ber... hori gaiñera nahiko jakintsue zan gai hoixetan ta...

2. Ezkonberritan, Nafarroara bizitzera

- **Erref:** AZK-009/002
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:01:40. **Bukatu:** 00:02:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>1945an jaio zen Azkoitiko Urrategi auzoko Ubegietatxo (Uitetxo) baserrian. Ezkonberria zela Nafarroara joan zen bizitzera senarrarekin, osasun arazoak zituela eta klimagatik, eta hiru urte igaro zituzten bertan. Anaia soldadutzara zihoala eta, gurasoak bakarrik geratzen zirenez, etxera bueltatu zen hiru urteren ostean.</p>

Transkripzioa

- Bueno, hasteko, hori, esango dozu zure izena eta abizena?
- Salome Uria Narbaiza naiz eta jaxo nitzen apirillen zortzixen, mille beatzireun ta berrota bostien, eta jaio nitzen Azkoitin, Uititxo basarrin eta hor bizi naiz. Ezkonberritan hiru urte inguru edo pasau nittun Naparrun bizitzen, eta gero atzera honutz etorri giñen, nere anaiek jun ber zun soldau ta aitte ta ama bakarrik gelditzen zien, eta neu pixket Naparrure jun nitzen..., mutillei eskeiñi zixoben han lan bat ta ni ibiltzen nitzen beti katarrukin de (ta) bronkitisekin de (ta) neumoniakin de (ta), oso geizki eta hara junde sendau nitzen...
- Klimagatik, ezta?
- Bai, gizendu pixket eta sendau, ta gero honutz etorri giñen, eta gero harrezkero berriz hortxe basarrixen.

3. Urrategi auzoan eta Azpeitiko jesuitetan eskolan

- **Erref:** AZK-009/003
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:02:40. **Bukatu:** 00:04:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolan Urrategi auzoan bertan ibili zen lau urtetik 12 urtera bitartean. Eskolara joan aurretik esnea saltzera joaten zen kalera. 13 urterekin Azpeitiko jesuitetara joan zen eta han lana egin eta ikasi batera egiten zuten. Inguruko jendea biltzen zen bertan. Bertan bizi ziren.</p>

Transkripzioa**4. 14 urterekin josten ikasten eta gau-eskolan**

- **Erref:** AZK-009/004
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:04:20. **Bukatu:** 00:07:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>14 urterekin etxera bueltatu eta baserrian lanean jarraitu zuen. Abendu inguruan hasita arratsaldeetan josten ikastera joaten ziren Azkoitira. Neska ugari joaten ziren. Tabernetara ez ziren sartzen. Institutura ere joan zen neguan kalean geratzen hasi zirenean, denbora libre betetzeko; gau-eskola modukoa zen. Maila altua nahi zuenak kanpora joan behar izaten zuten ikasketak egitera. Lagun baten inguruko ikasketa kontuak.</p>

Transkripzioa

- Gero, hori, gero etxea etorri nitzen hamalau urtekin, hamalau urte t´erdi edo hola, ta gero berriz basarrixen eta gero... hor abendu inguruan hasi ta jostea etortzen giñen arratsaldetan, ondo pasatzen genun, lagunartie eitten genun ta josten ez dakit zemat ikixten genun baiñe behintzet gustoa ibiltzen giñen... eta horren ondoren, ba...

- Zeiñekin ikasten zenduen josten, hemen bertan Azkoittin?

- Bai. Kapañanekue, hor neska pillo bat pasau da hortiken.

- Bai orduan izaten zan, ezta, neskak jostera...

- Hil da bea.

- ... biharrezko moduan edo, ezta? Gehixenak juaten zian ez josten ikastera?

- Bai neguen ta hola, eta kalin neskame zeudenak eta umezain zeudenak´e eukitzen zebeñ atsaldin bi ordu edo hiru ta jostea jutun zin generalin ordun, bai. Tabernatan ez giñen sartzen ta libre kalin zeudenak´e jostea jun ber ordun eta gero bolara batzuten hemen Institutun´e zea hemen bazeuen akademi bat oin San Martingo soziedadie dana eta horra ere jun izen nitzen, baiñe hori izeten zan pixket neguen kalin gelditzen hasi giñenien, gazte-gazterik ez, gero hogeitau urte ingurukin edo, eta nola illuntzien denbora bat genduken libre ba illuntzin aprobetxau horra akademi horta juteko.

- Zer zan gau-eskola moduen edo, arratsaldetan?

- Bai, illuntzin, illuntzin zan bai. Taillerretatik eta jutun zien ta, orduen titulukin ez ziren hasten, osea oiñ ez dakit ba, Altuna y Urian gerenten bat, beste banku bateko zuzendari ta hoixek gurekin batera zebiltzen han zean eskola batxillergo ingurutiken ateratzen zienak ta gero kanpora jutun ez

bazien ikastera, hor gelditzen zien.

- Hemen mailla altuagorik ez zeguala bertan, ezta?

- Ez, kanpora jun ber zan, ta profesional maillie lehelengo hasi zanin hemen zan profesionala baiño Maestria bakarriken, gero Peritajie eiñ ber zan kanpun ta Maestria ere lelengotik ez, Maestrire Arrasatea lelengo jun zienak jun zien, gu baiño pixket gaztiouek zin haixek eta... gure lagun bat baiño urtieket pixket pasauteko onduen hasi zan hemen, zea, Angelesen ta lagun bat zan eta, hori hasi zan ikasten profesionalin, lelengo hemengo profesionalin te gero profesionaleako preparau zan ta hor segitzen dixo, oiñ jubilau ez bada behintzet, oiñ jubilau, hor zeuen.

5. Bertako irakasleak eta maistra nazionalak

- **Erref:** AZK-009/005
- **Iraupena:** 0:04:08. **Hasi:** 00:07:09. **Bukatu:** 00:11:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Urrategiko eskola oso gogoko zuen; bertako maistra zuten. Hasieran, inguruko jendea izaten zen maisu, baina gero maistra nazionalak etortzen hasi ziren. Erdaraz egiten bazuten ere, euskaldunak ziren. Maistra haietako bati buruzko kontuak.</p>

6. Dena erdaraz ikasten zuten

- **Erref:** AZK-009/006
- **Iraupena:** 0:04:28. **Hasi:** 00:11:17. **Bukatu:** 00:15:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Orain baino azkarrago ikasten zuten eta dena liburu batetik. Nazionalak ez ziren irakasle gogorak; batek euskaraz hitz eginez gero, jatekoa kentzen zien. Dena erdaraz ikasten zuten. Ahizpa baten pasadizoa eskolan euskara eta erdara zela eta.</p>

7. Erdaraz etxean ikasi zuten

- **Erref:** AZK-009/007
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:15:45. **Bukatu:** 00:17:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Salomek etxean ikasi zuen erdaraz. Etxera neskame bat joan zitzairen zaintzaile lanetara eta hark erakusten zien. Morroi bat ere izan zuten eta hari entzunda ere ikasten zuten.

Transkripzioa

- Guk etxin, erderaz etxin ikixi genun guk. Nik bost urte neuzkela jaixo zan nere anaixe eta ama beti kanpun ibiltzen zan lanien, eta amama pixket delikau ibiltzen zan osasunetik, eta neska gazte bat ekarri zebe, ta harek ez zekixen zea...

- Euskeraz ez zekixan?

- Ez zekixen... Eta nere ahizpek esaten du, ni ez naiz hainbeste akordatzin, beakin lo eitten genula ta beakin kuartun lo eiñ ber, ta beakin zea ta... kantuk´e lehelengo erderazkuk ikixi genuzen etxin... “si” ta “vamos” emen zekitzen nere ahizpek esaten du eta zea, haure etorri zanin, beak eukiko zittun xei urtetik zazpira o hola, “si” ta “vamos” ta handik bi hillabetea eskolako danak baiño gehixo emen zakixen, beti beakin beti beakin...

- Egunero egunero beakin berbetan, ezta?

- Eta zea, “en el monte Gorbea” ta erakusten zizkuben eta gurin zeuen morroi bat Orduñatiken eta hor ibilitakue, aitte ta ama hilde, Orduñan hazi, ta gero morroe ta ibilitakue ta, “aupa Urretxu” esaten zun batek eta “aupa Amurrio” esaten zun bestik. Guk Urretxu gutxi gorabehera bageñekiun hor bazeola, baiño Amurrio, harek esaten zulako. Baiño hola ikixi giñuzen guk abesti hoixek. Eta ordun guk ez genun hainbeste sufriu iguel erderaz ez jakitte horrekin. Nere lagun batzuk esaten debe, “jo, ezin ulertu” ta...

- Orduan jentandako...

- Problema eittie baiño, ulertzie zaillao izen zebela beaixentzat, guk ez genun hori izen...

8. Gurasoen ikasketak

- **Erref:** AZK-009/008
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:17:23. **Bukatu:** 00:18:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Amak auzoan ikasi zuen eta erdaraz ez zekielako zenbait lanetara ezin izan zuen joan; aitzak, aldiz, La Sallen egin zituen ikasketak eta erdaraz moldatzen zen. Eskolan gurasoek ikasten zituztenak aipatzen ditu.

Transkripzioa

9. Gurasoak Urrategikoak; eskolatik irtetean jolasera

- **Erref:** AZK-009/010
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:19:46. **Bukatu:** 00:20:44

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Aita Ubegietatzokoa eta ama Zabaleta baserrikoa ziren, biak Urrategikoak. Eskolatik ateratzean etxean lan ugari bazuten ere saiatzen ziren etxeratu aurretik jolasean.</p>

10. Amona 8 senidetan zaharrena

- **Erref:** AZK-009/011
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:20:44. **Bukatu:** 00:22:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Amona 8 senidetan zaharrena zen eta eskolatik etxera joaten zen anai-arrebak zaintzera. Ama gazterik hil zitzaion eta eskolan ez zen ibili, baina oso azkarra zen. Ahizparen inguruko kontuak kontatzen ditu.

Transkripzioa

11. Jolaserako asti gutxi

- **Erref:** AZK-009/012
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:22:11. **Bukatu:** 00:23:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Umetan futbolean, pilotan eta ezkutaketan ibiltzen ziren, besteak beste. Ez zuten astirik izaten jolaserako.</p>

Transkripzioa

- Bai eta ze jolas eitten zenduen?
 - Fuelin (futbolean) asko.
 - Bai?
 - Bai. Neskak mutillakin ta...
 - Ordurako ya modan zeuan orduan?
 - Bai jo-ta belaunek danak puskaute dauzket nik fuelin (futbolean)...
 prakaik´e ez zan ibiltzen artin ta... Eta ixkantau te billaka ta, pelotan ta, bai. Bagenun mutil potolino bat, hil zan, zea, lehelengo postien parin jartzen zan eta handiken ertetzen beti azkeneko gelditzen zan. "Hik ze eitten dixok hor pelotiei?" Beak tanto asko eitten zun ta zan potolinu ta ez zan asko´re moitzen ta . "Hik ze eitten dxok pelotiei?". "Efektue eman. —esaten zun— Efektue eman". Bai. Pelotan, ta gero ixkantau ta billaka ta holako zeatan´e bai... baiño hola jolasten denbora asko asko, guk ez gendun.

- Asti gutxi, ezta?
- Ez gendun. Bai, errekreo denboria ta...

12. Azokara saltzera

- **Erref:** AZK-009/013
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:23:05. **Bukatu:** 00:25:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa

Laburpena:

<p>Baserrian behizain edo babak, intxaurrak eta sagarrak biltzen aritzen ziren. Ganadu batzuk bazituzten eta garia egiten zuten. Fruitu-arbola asko zituzten. Kalera saldu eta diru gehien ematen zuen produktua arrautza zen. Oilaskoa eta esnea ere saltzen zituzten Azpeitiko azokara. Gerezi-arbolekin izaten zituzten arazoak kontatzen ditu.</p>

Transkripzioa

- Ta ze lan eitten zenduen umetan basarrixan?
- Behizain ta, babak bittu ta, babak bestik haundiñek bittu ta ondoren gelditzen zienak. Eta intxaurrek bittu ta, sagarrak eta, danetik.
- Ta ganaduik bazeukezuen etxen?
- Bai, hogei bat edo egoten zien, asko ez. Bueno, asko ez, oiñ daude gehixo, baiño orduko dexente zan, zeatik nekazaritzie eitten zan gehixena, garixe ta artue... bai, nekazaritzie haundixe eitten zan. Eta gero baratzan ta, hori gutxixo, ta frute arbolie asko.
- Ta kalera saltzen zenduezen frutak?
- Bai... bueno, arrautzie ta hori, arrautzie´re asko. Gu txikixek giñela arrautzie zan dirubideik onena, osea, dozena bat arrautzekin egun guztiko mutille pagatzen zendun. Osea, oiñ hamabost mille pezeta... Morroie ez, morroie baiño, gurin Euzkitzekue ibiltzen zan, hogetaxe urteko mutille, sasoi onenekue, ta haure zan etxeko bat bezela. Haure juten zan mendire bakarrik iguel, zea... eta sueldue oiñ hamaxe mille pezeta balixoko balittu bezela, zeak, arrautze dozena batek. Ordun, arrautzie zan nahiko diruitturri bat, zea... geo oillaskue ta holakuk hoixek azoka ematen zien Azpeitire... esnie ta zea hona. Keixie ta´re bai lehen lehen, geo Zubillaga jarri ta kitto keixek. Zubillaga jarri ta hogeita hamar hamabost urtin ez da keixeik izen gurin.
- Baiña ez dabelako emoten edo...? Esan nahi dot, keixia ez dao...
- Loriei eitten zixon Zubillagak botatzen zezen zerbaitte kaltie eta gero hor biltzen hasi zienin... Geo erraustei zea hauen kontra daude jende danak, baiño, bentajie ekarri zun. Oiñ´e juten da keie, baiño, zea, iñ eitten dittube bittu ta, onbre, Oñederran egotien partez Asteasun baleo, nahixo nik baiño...
- Bai, bai.
- Baiño oiñ bittu eitten dittube ta oiñ bai, oiñ izeten da atzea, baiño, hor hogeita hamar, hamabost urtien ez da izen.

13. Urretxuko azokara trenez udareak eta sagarrak saltzera

- **Erref:** AZK-009/014
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:25:27. **Bukatu:** 00:26:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Sagarrak eta udareak saltzera Urretxura joaten ziren trenez igandetan. Kanpoko fruiturik ez zen izaten, bertakoa soilik, eta oso ondo saltzen zen.

Transkripzioa

14. Inguruetako erromeriak

- **Erref:** AZK-009/015
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:26:56. **Bukatu:** 00:28:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Erromeriara Urrategira, Madarixara, Elusura eta Irukurutzetara joaten ziren. Orduko neska-laguntzeak aipatzen ditu. Madarixan helduan egiten zen, baina Martitan sueltoan bakarrik.

Transkripzioa

- Ta erromerie aipatu dezu lehen...
- Erromere Urrategire bai, ta gero Irukurtzeta egunien hasi eta Arratik pasau arte, egoten zan bertan gutxi. Irukurtzeta, ta gero San Ixidrotan Madarixa...ta atzea zazpirek eta laurdenin abantau eiñ ber etxea, oiñez etortzeko, eta geuk motordunek edo lagunek billaute euki arren, ba, gaztio batzuk edo izeten zin ta haixekin batera etortzeko. Oiñ, ondo pasatzen genun bidien, egundoko juergak eitten giñuzen. Eta Elosure, Martittea, Madarixaa, hoixetaa. Kurutzetaa eta San Lorentzoa ez. Hoixetan erromeixe oso berandu izeten zan. San Lorentzo aldeko neskak... gu Madarixatik etxera ta haixek orduntxe erromere juten zien.
- Bai, han amaitutakuan erromerixia, ezta? juaten ziran lehelengo San Lorentzora eta han...
- Ez, ez, ez. Bestera bai, hori mutillek eitten zebe. Urrategin erromeixe bukau, Oxaunea neskiei lagundu eta Kurutzetan erromeixe harrapau. Han beste neska laguntzie behera eiñ, Elgoibar aldea, eta... ta artien San Lorentzon erromeixe harrapau. Motorrakin eta zebiltzenak eta esaten zebe hori. Beti izeten zan berandu Elgoibar aldetik beranduo, zea... eta.
- Bai, eta hori... askotan entzun izan dou, ezta? Madarixan eta Elgoibar aldian agarraua eitten zala ta, ez dakit, zure sasoian ya libre egongo zan...
- Ez, ez. Madarixan gure sasoi en beti en zan, eta Martitten ez zan eitten, bakarrik Martitten sueltue eitten genun eta zerien Aizpurutxon ´e gure denboran eitten zan, baiñe, aurretik hamen Alberdi edo alkate egon zani en, harek zea eiñ zu en, kioskue ta eiñ zittun eta dantzie harek zea eiñ zu en... baiño aurretik Axkoittin ez zan eta...

15. Martirietan helduan dantzatzea bekatu

- **Erref:** AZK-009/016
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:28:58. **Bukatu:** 00:30:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Martirieta auzoko apaizari buruzko kontuak. Erromerian lotuan dantza egitea debekatu egin zuen.

Transkripzioa

16. Pol-pol mendiko eta Urrategiko jaiak

- **Erref:** AZK-009/017
- **Iraupena:** 0:04:42. **Hasi:** 00:30:03. **Bukatu:** 00:34:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Pol-pol mendiko erromeria eta Urrategiko jaietako ospakizunak aipatzen ditu. Gaztetako pasadizo bat kontatzen du. Gorla, Urretxu eta Arrateko erromeria.</p>

Transkripzioa**17. Gizona trenean ezagutu zuen**

- **Erref:** AZK-009/018
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:34:45. **Bukatu:** 00:36:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Gizona Aizpurutxokoa zuen. Hangoek ez zuten dantzarako afiziorik izaten. Inguruko herrietako jendea eta erromeriak aipatzen ditu. Gizona Urretxutik etxera trenean zihoala ezagutu zuen.

Transkripzioa**18. `Herri Gaztedi´-ko kide**

- **Erref:** AZK-009/019
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:36:39. **Bukatu:** 00:38:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>`Herri Gaztedi´ taldean ibili zen Salome. Orduan bost lagunetik gora biltzeko eliz giroko talderen batean izan behar omen zen. Hainbat talde zeuden: "Acción católica rural", "Juventud católica obrera"... Bilerak egiten zituzten gau-eskola lortu edo auzotarrei laguntzeko. Herri txikietan indar handiagoa omen zuen `Herri Gaztedi´k.</p>

19. Azkoitiko parrokian ezkondu eta Lovainara bidaian

- **Erref:** AZK-009/020
- **Iraupena:** 0:07:44. **Hasi:** 00:38:20. **Bukatu:** 00:46:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Ezkundu zirenean, Lovainara joan ziren Salome eta gizona. Lagun katalan batzuei buruz hitz egiten du. Azkoitiko parrokian ezkundu ziren. Seminariotik ikastera joandako gazte ugari zegoen Lovainan eta lagun ugari zuten bertan; haien etxeetan pasa zituzten egunak. Anekdotak bat eta ezkon-bidaiaiko kontuak aipatzen ditu.

20. Jaunartze txikia eta handia egin zituenekoa

- **Erref:** AZK-009/023
- **Iraupena:** 0:04:08. **Hasi:** 00:48:45. **Bukatu:** 00:52:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Eskolan ez zuten dotrinarik ikasten. Urrategira hilean behin pasionistak joaten ziren eta haiekin ikasten zituzten errezoak. Orduan kristautasun otoitz giroa etxean ikasten zuten. Orduko kontuak kontatzen ditu. Zazpi urterekin jaunartze txikia eta hamarrekin handia egin zituen. Jaunartzeko arropen buruz hitz egiten du. Neskek eta mutilek batera egin zuten jaunartzea.

Transkripzioa

- Eta lehen eskolan eta ze ikasten dan eta komentau dozu, eta dotriñiak orduan inportantzia haundixa zekan, ez? Edo...
- Ez, baiño guk ez genun...
- Aurretik igual gehixao.
- Dotriñie guk eiñ gendun... eskolan "religión" ikixten genun, dotriñaik ez, eta gero... Urrategin bertan jaunartzeko zeakin eta apaizekin zea, baiño ez dakit e... ta etxien ikixiko gendun baiño ez dakit erreza. Eske etxin eitten zenun bizitzie. Oiñ nere illobak, ordenadorien, hiru urtekin, ya ordenadorien xague nere aldien errez ibiltzen du. Hori egixe da. Ta oingo umiek zemat dakixen. Bai, hortan bai. Baiño erresaixue, ordun Pasionistak etortzen zien, zea beste Pasionistan zea bat eon zan, eta Urrategire hillien behin eo etortzen zien Pasionistak. Eta erresaixo... Pasionisten erresaixue izeten zan bost Gloria ta Agur Maria, bost Gloria ta Agur Maria. Ta nik bestie ez nun errezatzen, letanik eta ez nakixen ta, baiño lau urtekin nik errezatzen nun erresaixo txikixe ta, gaiñea, gustoa, zea amamak eo famako nittun batematek seguru asko. Ez naiz oin akordatzen. Ta ilusixukin bezela. Ta klaro zertan ai zean, pues haure ikixten dezu. Guk dotriñikin ta...
- Afalondoren edo iguel eukiko zenuten ohittura...
- Erresaixue beti errezatzen genun, erresaixo txikixe ´re bai. Ordun, ez dakit, ordun... kristautasun, otoitz giro hori eta bizi eitten zan. Ordun ez zan propixo ikisten, ez dakit guk dotriñie ta...
- Etxian ikasten zana igual...
- Bai, ilusixukin bezela gehixo, zea, ta nei akordatzen zat letanixek ta hori bai, hori ya eskolan erresaixue errezatzen zanin eo zapatutan, ez dakit nola zan baiño gehixo... batzuk, "nik ez dakit" esaten zebe, baiño "nik ez dakit" ez esateatik, maestrik eskatzen baziun errezatzeko, "nik ez dakit" ez esateatiken, hori nei akordatzen zat, bazkalondun eo bestik xiestaa juten zinin jarduten nuela letanixek eta ikixten.
- Ikasten...

- Bai ta ikasten, nere ahizpa zan askoz azkarro ni baiño. Ta nei gehitxo gustatzen ziten ta nik jarduten nuela akordatzen zat hola zea, baiño bestela komunixue ta zea ta hori ez.

- Zenbat urtekin ein zenduan komunixua?

- Zazpi urtekin ta gero bestie beatzi-hamar urte.

- Bi, ezta? Haundixa ta txikixa.

- Bai eta gerokue ein nun ber baiño lehenuo berez, eta... artin gaztie nitzela eo esan zixon apaizek gure amai eta, ez bestie kalea hasi zan eskola ta kalea haste ezkerro, osea, bertan segitzeko zea ta baiño dotriñie ta berdin segiko dixo ta ni gustoa juten nitzen zea...

- Ta zelan jantzitta eitten zan komunixua, normal?

- Ez... Madrittik ekarritako bordau bat genun zeana aiña eondako batek, gure tia baten amak, aiña eondako baten bordau haundi bat, haure azpikogona zan.

- Garestixa izango zan, ba, haura?

- Ez dakit nolakue zan, baiñe zea behiñ “hoixe azpikogona earra daukezula” ta zazpi urtekin Don Anastasio hemengo apaiz batek esan “azpikogona hoixe dotorie”.

- Apaizak.

- Bai, ta “hau lotsabeie” pentsau nun, ixilik baiño, “hau apaiz zahar lotsabeie, hau” pantsau nun.

- Atenziñua deittuko zetsan.

- Bai, eta bigarren komunixoako akordatzen zat zea burukue holako... ta altie eongo nitzen eo, ez dakit, nobia ematen nuela ta jardun ziela... zea... ta ez dakit. Bai ordun, artin komunixoko jantzita ibiltzen zan... zea... Eta gero gonbidauek etxien, ordun tian bat eo etorriko zan launtzea etxin, gurasuk eta juteko elizea ta baiño.

- Ta neska ta mutil danak batea komunioa?

- Bai, ta haundi ta txiki batea danak, batzuk zazpi urtekuk ta bestik zea, bai.

21. Mezara Urrategira

- **Erref:** AZK-009/024
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:52:53. **Bukatu:** 00:54:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Mezara Urrategira joaten ziren igandero eta meza ondorenean dotrina egiten zuten. Apaizaren inguruan hitz egiten du. Orduan ez zuten konfesatu beharrik. Salomek gozatu egiten zuen errezo eta eliz inguruko ekintzekin.</p>

Transkripzioa

- Eta mezatara ta Urrategira?

- Bai Urrategire normalin beti, bai.

- Jaiero?

- Bai, bai jaixetan bakarrik eoten zan han, bi meza ta... goizeko mezetaa jun ta gero dotriñie baldin bazeon, meza ondun dotriñie ta hoixetxek .

- Ta zein zan apaiza ordun?

- Guk txikitten Don Esteban euki genun, hori zea... geo Martittea eman zebena zea... kamiñue ein zanin, eta zea zan oso zuzena ta oso zea...

- Ta pekatuik eta konfesau berrik eta izaten zenuen?

- Ez dauket nik pekatuk... batzuk esaten debe inpresixo hori pekatu kontun. Hori batzuk etxetiken´e, gurin aitte´re zan oso fede haundikue zan, oso sakona ta zea... baiño ez hola detailletan ez, jarrerikin gehixo, iguel oingo kristautasunekin gehixo lotute ta ni neuk ez dauket. Gero Jesus y Mariatan´e hori, karo, monjan komentue zan ta baiño ni pozik zea eitten nintzen, bai mezetaa egunero juteko ta bai abestixek zea... Bai, bai, gozatzen nun , nei oiñ´e Jesus y Mariatako elizie... gustatzen zat.

- Ta errezuak eta hori euskeraz ikasi zenduen ala erderaz hori be bai?

- Euskeraz.

- Euskeraz.

- Euskeraz, erderaz´e bai ta latiñez´e bai ikixi, baiño ahaztu xamartu zatxit. Oiñ Erromaa ta juten geanin, erreze eitten deu latiñez guk´e, inglese ez baiñe... zea eta... ez geo Jesús y Mariatan´e hori elizkizunek eta egunero eta hori, baiño bestela.

22. Urrategiko bidea auzolanean; gari-jotzea

- **Erref:** AZK-009/025
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:54:24. **Bukatu:** 00:56:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

<p>Urrategiko bidea auzolanean eta eskuz egin zuten. Martitatik etorritako jendeak ere laguntzen zien. Bukatu zenerako Salomek 15-16 urte zituen. Gari-jotzeaz eta ondoreneko otorduez hitz egiten du.</p>

23. Ura etxe ondoko presatik hartzen zuten

- **Erref:** AZK-009/026
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:56:08. **Bukatu:** 00:58:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Ura presatik eramaten zuten etxera; argia ere hango urarekin lortzen zuten. Telebista bateria bidez ikusten zuten. Arropak etxean garbitzen zituzten eta atariko askan astintzen zituzten. Herriko ura ere etxe ondotik pasatzen zen.

Transkripzioa

- Ura esan dozu etxian, ezta? Gastatzen zala...

- Ure genduken Euzkitzetiken presa bat zea... ta presa hortatiken indarretxin argixe hortik sortzen zan ta oraintxe arte euki deu hori zean, oin lubizi batzuk jun die ta azkena eukitzen genun txarrixentzako. Eske frigorifikuk eta eukitzeko ez zan ona argi hori ta gero iberduero sartu zanin guk mantendu genun, Euzkitzekuk eta guk mantendu deu hori txertuk eitten ta argixe eitteko. Baiñe trilladorie ta danak beakin ibiltzen zin zea

hari garbitzekue o traste danak beakin ibiltzen zin. Bakarriken frigorifikue, telebistantzat txarra. Guk lehelengo telebista ipiñi gendun, argixekin ezin zan ondo zea ein, eta baterixe kargatzen genun etxien, argittik baterixe kargau eta baterixekin telebista ibili, bai nahiko problematikue hortako zan argi hori. Baiño bueno ni jaixo nitzenien eo eindako presie zan hori.

- Ta arropak garbitzea eta haruntza joaten ziñeten?

- Ez, etxin... bai gure aittitte ezkontzeako, lehen´e ondun, etxe ondun eongo zan, baiño goixen jaixotzen dan tokittiken tuberixe sartu eta etxe barrun fregaderak eta zeak eta ipiñi ein emen zebe gure attitte ezkontzeako, zea manantial zea dao, gaiñea, potentie dao oso zean Urrategin, zea Oittekue, Oitteko... kaleko jendie ta jutun zan hara ure eranez lehen oñez ibiltzen zin Urrategittik bueltan, oso manantial ona da, ta ugerixe da gaiñea eta ez... Ordun etxin garbiu ta gero astintzea ataire, ataxen zan aska haundi bat eta bi etxetakuek, gu bi etxe alkarren onduen ta bi etxetakuek kontuk esan eta erropak garbiu ta, bueno, garbiu, han astindu eitten zien. Ez, urekin ez, ardue batzutan ahaztute ta ibiltzen gea baiño ure, hor ez dao urekin problemaik, gure alde hortan, ur askoko tokixe da hori. Gero herriko ure´re bertatik pasatzen zan, hortxe, erreka hortan gorauen, gure presie hartzen zan baiño gorauen hartzen zan herrireko ure´re ta gure etxe aurretiken pasatzen da ur hori´re.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com